

ALKATEAREN ERABAKIA

GAIA: Dirulaguntzak emateko oinarriak onartu eta deialdia egiteko proposamena

ESPEDIENTEA: 2026MDID0004

INTERESDUNA: Eskoriatzako Udala

Udal honetan indarrean dagoen Dirulaguntzen Plan Estrategikoak, besteak beste, ondorengo dirulaguntza lerroa jasotzen du:

- Programa: Tokiko merkataritzan erabiltzeko Eskoriatza Bizirik kontsumo-bonuen jaulkipena.
- Onuradunak: Herritarrak.
- Laguntzaren xedea: Eskoriatzako merkataritza bizirik mantentzea, herritarrek tokiko establezimenduetan egiten dituzten erosketak diruz lagunduta.

2026ko aurrekontuak, 0100.480.431.00.01 partidan, behar besteko aurrekontua jasotzen du Plan Estrategikoan aurreikusitako dirulaguntza lerro hori emateko.

Era berean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 17.2 artikulua betez, Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorra onartu zuen eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu 2021eko maiatzaren 10ean (85. zenbakia).

Dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko udal ordenantza orokorren 15. artikulua ezartzen du dirulaguntzak norgehiagoka-araubidean emateko prozedura ofizioz hasiko dela, organo eskudunak, dagokion batzorde informatzaileak aurrez diktamena emanda, onartutako deialdi publikoaren bidez, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean argitaratuko dela.

Aurrez esandako guztiarengatik, Lurralde eta garapen ekonomiko jasagarria Batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.s artikuluari dagokionez Dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko udal ordenantza orokorren 15. artikuluan ezarritakoa betez, Alkate naizen honek, honako hau

ERABAKI DUT:

Lehenengoa: Ondorengo dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzea (honekin batera doaz eranskin gisa): ESKORIATZA BIZIRIK EROSKETA-BONUEN OINARRIAK (2026).

Bigarrena: Dirulaguntza horietarako deialdia egitea, iragarkia argitaratuta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean eta Udalaren webgunean.

Hirugarrena: 15.000€ko gastua baimentzea indarrean dagoen aurrekontuko 0100.480.431.00.01 aurrekontu aplikazioaren kargura

ALKATEA

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2026MDID0004-Alkate Erabakia/Resolución de alcaldía (ESKORIATZAKO UDALA)

Digitalki sinatua:



EDORTA ZUBIZARRETA ALEGRIA

Alkatea

Data: 2026/06/11 12:35:24